

Bideoak sortzeko tresnak

Dokumentu honen helburua da bideoak sortzeko erabil daitezkeen hainbat tresna biltzea eta aurkeztea. KZAA sailak eskainitako KISA masterrean on-lineko taldea daukagu, mundu zabaleko ikasleak matrikulatzen dira talde horretan eta horiei guztiei gure ikasgaietako edukiak azaltzeko bideoak egin behar izan ditugu. Dokumentu honetan bideo mota jakin bat egiteko bidea aurkeztuko dut, irakaslearen irudirik gabeko bideoak, baina irakaslearen ahotsa eta arbeleko irudiak barneratuko ditu.

Tresnak

Hainbat tresna behar izan ditugu, bai software aldetik eta bai hardware aldetik ere. Hardware aldetik ukimenezko pantaila eta pantailan idazteko edo marrazteko arkatza (sagu lanak egiten dituen arkatza) dira berezianak, horrez gain mikrofono on bat eta entzuteko kasko erosoak ere komeni dira.

Software aldetik aukera zabala da, nire kasuan software librea erabili dut eta horiexek azalduko ditut:

1. Aurkezpena sortzeko aplikazioa: **Beamer** eta **Latex**¹
2. Arbel digitalaren lana egingo duen aplikazioa: **Xournal**²
3. Pantailan azalduko ahotsa grabatuko dituen aplikazioa: **Kazam**³
4. Soinua grabatzeko aplikazioa: **Audacity**⁴
5. Sortutako bideoak editatzeko aplikazioa: **Kdenlive**⁵
6. Bideoak publikatzeko gunea: **EHUtb**⁶
7. Bideoetarako sarbidea: **Moodle**⁷

Nire prozesua

Aurkezpena sortzeko Latex bidezko Beamer aurkezpena sortu behar da lehendabizi. Horrek pdf formatuan aurkezpena gordetzeko aukera ematen digu, ondoren pdf hori Xournalekin ireki behar da, eta Xournalek pdf dokumentuaren gainean marrazkiak egitea edota testua gehitzea ahalbidetuko digu. Ikasgaiaren azalpenak, beraz, Xournal aplikazioa erabiliz eman behar dira. Azken finean, Xournalek arbel digitalaren papera beteko du.

Bideoa sortzeko, ordea, azalpen horiek guztiak, eta pdf dokumentuaren gainean idatzitakoa jaso behar dira. Lan horretan Kazam aplikazioak lagunduko digu, aplikazio oso sinplea da, pantailaren zein zati grabatu nahi dugun esan behar diogu, eta era berean mikrofonotik esandakoa ere grabatzeko esan behar zaio. Horrela, bideo batean pantaila zati horretan gertatzen dena eta bitartean esandako guztia jasoko digu.

1 LaTeX – A document preparation system: <https://www.latex-project.org/>

2 Xournal is an application for notetaking, sketching, keeping a journal using a stylus. <http://xournal.sourceforge.net/>

3 Kazam is a simple screen recording program: <https://launchpad.net/kazam>

4 Audacity® is free, open source, cross-platform software for recording and editing sounds: <http://audacityteam.org/>

5 Kdenlive. Free and open source video editor for GNU/Linux, Mac OS X and FreeBSD: <https://kdenlive.org/>

6 EHUtb. UPV/EHUko erabiltzaileen multimedia edukiak biltegitratu, katalogatu, zabaldu, argitaratu eta ikusteko zerbitzua: <http://ehutb.ehu.eus/>

7 E-gela. UPV/EHUko ikasgela birtualen plataforma: <https://egela.ehu.eus/>

Jakina da oso zaila dela lehenengotik dena ondo azaltzea, azalpenetan akatsak egin ditzakegu, azalpenen bat nahi baino luzeago atera dakiguke, edota azalpen batean hanka sar dezakegu. Oker horiek guztiak bideoa editatzerakoan zuzen daitezke, eta edizio lanetan KDElive aplikazioak lagunduko digu. Aplikazio hau oso ahalsua da, baina gehienetan ekintza sinpleak egin beharko ditugu:

- Bideo zati bat moztu
- Ahotsa kendu eta beste azalpen bat gainjarri
- Agian, tartean azalpen zabalago bat sartu...

Bukaeran, bideoa guk nahi dugun bezala dagoenean, edo gure nahietara era onargarrian hurbildu denean, bideoa grabatu beharko dugu, formatu jakin batean, gero webean argitaratzeko moduko formatuan. Nire kasuan irudiarentzat mpeg4 eta soinuarentzat mp3 formatuak erabili izan ditut. Bideoa publikatzea besterik ez da falta, horretarako UPV/EHUk eskaintzen duen zerbitzua erabili izan dut, hau da EHUtb. [Adibide](http://ehutb.ehu.es/es/video/index/uuid/569e2856ae4bf.html)⁸ moduan bideo bat ikus daiteke EHUtb zerbitzuan bertan, prozesua bera azaltzen duen bideoa hain zuzen ere.

8 Prozesuaren erakusle den bideoa: <http://ehutb.ehu.es/es/video/index/uuid/569e2856ae4bf.html>